

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Astearte honetatik, hilak 14, aurrera hitzordua eska daiteke Ogasuneko bulegoetan errenta-aitorpena egiteko

*Erakunde autonomoak ostegunetik, hilak 16, PFEZ eta Ondarearen gaineko 50.000 bat aitorten kudeatzea aurreikusten du*

Lunes, 13 de abril de 2015

Nafarroako Zerga Ogasuna astearte honetan, hilak 14, hasiko da 2014ko Errenta eta Ondarearen gaineko aitortenak beren bulegoetan egiteko hitzorduak ematen. Hitzordu horiek Internetez eskatu ahalko dira [www.navarra.es](http://www.navarra.es) webgunean edo ondorengo telefono-zenbakietara dei eginez: 948 505 505 eta 948 505 506 (astelehenetik ostiralera martxan izango dira 08:30etik 17:00etara).

Aurretik hitzordua eskatzea nahitaezko baldintza da aitortpena Nafarroako Ogasunak jendeari arreta emateko dituen sei bulegoetakoren bat egiteko. Honako toki hauetan gaude: Iruña (Eskiroz kalea, 20 bis), Barañain (Comercial etorbidea, 4), Burlata (Ezkazabal plaza, 9), Lizarra (Koroazio plaza, 2), Tafalla (Teófano Cortés plaza, 7) eta Tuteran (Antso VII.a Azkarra plaza, 8).

Nafarroako Ogasunak 70 kudeatzaile espezializatuk osatutako dispositiboa prestatu du, eta apirilaren 16tik ekainaren 23ra, kanpaina ixten den eguna arte, zergadunei arreta emango die. Iaz bide horretatik 50.722 aitorten kudeatu ziren, kopuru guztiaren % 16. Aurten Ogasunak antzeko eskaera-kopuru bati arreta ematea aurreikusten du.

Gogora ekarri behar da iragan hilaren 8an Ogasunak 222.000 zergadun baino gehiagoren esku jarri zuela [www.navarra.es](http://www.navarra.es) webgunean jadanik egindako beren aitortpena. Kontsultatu ez dutenek datozen egunotan beren etxetan inprimatutako aitortpena edo webgunean deskargatzeko jarraibideak jasoko dituzte. Bulegoetako eraginkortasuna areagotzeko asmoz, aurrez eskatutako hitzorduen kudeatzaileek hala eskatzen duten zergadunei ere abisatuko diete proposamenen bat eginda duten; hala, beharrezkoak ez diren izapideak ez dira egingo.

Ogasuneko bulegoetz gain, 2014ko PFEZ eta Ondarearen gaineko aitortpena [www.navarra.es](http://www.navarra.es) webgunearen bidez aurkeztu ahalko da hilaren 8tik aurrera, eta hilaren 16tik aurrera, kanpainako dispositiboko 1.300 kudeatzaileak batzen dituen 10 erakunde lagaitzailearen batean. Informazio guztia honako toki hauetan kontsulta daiteke: [www.navarra.es](http://www.navarra.es) webgunean, 948 50 51 52 telefono-zenbakian eta [hacienda.tributaria.navarra@navarra.es](mailto:hacienda.tributaria.navarra@navarra.es) helbide elektronikoan.